



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 13
Urtea/Año 2013
Urtarrila/Enero

ESKERRIK ASKO!

Geure zuñaitz solidarioak oso fruitu onak eman ditu, eta hori bere erroetan isuri dugun maitasunari esker izan da. Tona erdi baino gehiago (500 kilotik gora!) bildu dugu elikagaiak eta norberaren higienarako productuen artean. Biñotzez eskertu nahi dizuegu erakutsi duzuen elkartasun-maila gorenaga, bai eta Sortaraziri beraiekin lan egiteko eman diguten aukera.

BA AL ZENEKIEN...?

2012-13 ikasturtean 87 beka eman ditugu guztira; hauetatik, 65 urtetik gorakoentzat 44 izan dira emandakoak. Laguntza hauen zenbatekoa 18.439,53.-€koa izan da.
125 familia ugaritako 182 ikasle dira ikasturte honetan hobaria jaso dutenak. Hobararen zenbatekoa, 15.985,46.-€koa izan da.

ZORIONAK

Gorka Bordegaraiak eta Joanes Atxak, abenduaren lehen egunetan Arrasateko Nazioarteko Akordio-lehiaketan parte hartu duten Musika Eskolako ikasleek, zilar-domin bana lortu dute dagozkien kategorietan. Zorionak bioi, eta beren irakaslea den Rafari, zerikusirik izan duelakoan...

Bigarren zoriona, Ondarreta Abesbatzaren Gabonetako kontzertuetan parte hartu duten Musika Lengoiako mutil eta neskentzat da; kontzertutik, Salbatzailearen elizan abenduaren 20an eta Santa Ana elizan abenduaren 27an izan ziren. Geure herriko abesbatzirik ezagunenetako batekin abesteko aukera izan dute, ganbera-orkestra on baten laguntzarekin. Zorionak zuen lanagatik, zuen konpromisoagatik eta gozarazi zeniguten uneengatik.

V. NEGUKO BIDAIA

Asko dira zoriontzen gaituzten pertsona, Musika Eskola eta Kontserbatoriak, eta "Andrés Isasi" Musika Eskolan bertan eta zuzenean musika onez gozatzeko dugun zorte handia aipatzen digutenak. Jendaurrean jotzen jakitea (gure errezitaldi eta emanaldietan egiten dugun bezala) bezain garrantzitsua delako entzunez gozatzea, eta interpretatzaile handien eskutik, gure entzunaretoa datozenak kasu.

Gure V Neguko Bidaia izango dugu aurtengoa; zuengan pentsatzen Musika Eskolan antolatzen dugun kontzertu-solasaldi zikloa da Neguko Bidaia.

Kontzertu-solasaldia formatu atsegin eta erakargarria da, errezitaldia amaitu eta gero publikoa eta interpretatzailea(k) deigarrien iruditu zaizkien gaien inguruan solasean egon daitezten ahalbideratzen duena. Ez dago musikologian hondoraino sakondu beharrik; baina egin behar izatekotan, egin daiteke. Modu erraz eta atseginen, musika-tresnen munduko oinarritzko gaien inguruan izan ditzakegun hesiak haustea da, musikaren historia apur bat gehiago jakiteko nahia, musikari izatea aukeratu duenaren historia, kontzertu bat emateko errepertorioa nola hautatzen den... Ez dizuegu aztarna gehiagorik utziko, zuen jakin-mina bizitu eta beraiekin gozatzera etor zaitetzten nahi baitugu.

Neguko Bidaiak bere V Edizioa beteko du aurten. Datorren urtarrilaren 12an, larunbata, 19:30ean hasiko dugu zikloa, geure Entzunaretoan Bilbobrass haize-metalen taldearekin. Web-ean sartu eta egitaraua irakurri.

Ez izan zalantzarik eta etortzeko gonbidapenak eskatu. Zain gaituzue.

ZUEKIN KOMUNIKAZIOA HOBETZEKO

asmoz, jakinarazpen bat hielaraziko dizuegu datozen egunetan, zuen posta elektronikoa baieztatu edo eman diezaguzuen eskutuz, informazio desberdinarik jaso ditzazuen: txosten pedagogikoak, matrikulazio-eskaeren baieztapenak, etab. Adingabekeen kasuan, garrantzitsua da emandakoa guraso edo tutoreena izatea. Eskerririk asko guztioi zuen laguntzagatik.

Hileko egutegia

Urtarrila

a	a	a	o	o	l	i
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

■ Jai-egunak

■ Eskolaren jarduerak

Agenda

Urtarrila

Urtarrilak 12: V Neguko Bidaiaren 1. kontzertua. **Bilbobrass.** 19:30ean Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.

Urtarrilak 19: V Neguko Bidaiaren 2. kontzertua. **Txistu eta Akordeoi bikotea: Garikoitz Mendizabal eta Aitor Furundarena.** 19:30ean Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.

Urtarrilak 23: Haize-zurezko tresnen Kontzertu Didaktikoa. 11:00etan herriko ikastetxeentzat eta 17:30ean Musika Eskolako ikasleentzat eta gainerako entzuleentzat.

Urtarrilak 26: V Neguko Bidaiaren 3. kontzertua. **Kantu eta Piano bikotea: José María González eta Anus Cividian.** 19:30ean Musika Eskolako Entzunaretoan. Sarrera 4 €.